



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko irailaren 12a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan amiantoa kentzeko garatu beharreko prozesuari buruzko plan zuzendari bat aurkez dezan. Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalien babesari eta ongizateari buruzko egungo araudia berrikusi eta eguneratzeko prozesu bat abian jar dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioek eta Ezkerreko-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan zigoren proportzionaltasunari dagokionez Oinarrizko Eskubideen Europako Gutuna betetzen dela bermatzeko. Osoko Bilkuran izapidetzea (5. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2017ko eztabaida dela-eta (6. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan amiantoa kentzeko garatu beharreko prozesuari buruzko plan zuzendari bat aurkez dezan.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko irailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan amiantoa kentzeko garatu beharreko prozesuari buruzko plan zuzendari bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko irailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2016ko irailaren 13an, PSNk mozio bat aurkeztu zuen Legebiltzar honetako Garapen Ekonomikorako Batzordean. Haren bidez, Estatuko Gobernua premia zuen amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko estatu-funts bat sor zezan. Eztabaida hari esker, denok azaldu ahal izan genuen zer pentsatzen dugun Nafarroako gure bizitza-esparruko leku asko eta askotan amiantoaren presentziak dakarren arazo larriari buruz. 2016ko abenduaren 31n, 2.858 pertsona dira amiantoaren eraginpean egondakoak; horietako gehienak, jada erretiroa hartuak.

Europako Parlamentuaren 2013ko martxoaren 14ko 2012/2065 (INI) Ebazpenak estatu kideei eskatzen die aurrerapausoak eman ditzaten amiantoa pixkanaka kentzeko prozesuan; eta Europar Batasunari, berriz, bide-orri bat presta dezan, OMEk ezarritako printzipioetan oinarritua, lantokietatik eta ingurumenetik amiantoa kentzeko, eta ereduak presta ditzan ikuskatzeko ea amiantorik dagoen eraikin publiko eta pribatuetan (bizitegi-eraikinetan nahiz bizitegirako ez direnetan), lursailetan, azpiegiturretan, logistikan eta hodiedetan.

2014ko uztailaren 8an, bere barne-erregelamenduaren 29. artikulua 2. apartatuan ezarritakoarekin bat, Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialak erabaki zuen ekimen-irizpen bat taxutzea «Europar Batasunean amiantoa desagerraraztea» gaiari buruz, Europar Batasunaren lehentasunezko helburu gisa ezarriko zuena erabilitako amianto guztia eta amiantoa daukaten produktu guztiak desagerraraztea. Hartara, Europar Batasunak 2032ra bitarteko gehieneko epea ezarri zuen estatuek konponbideak jar ditzaten eta European amiantoak dakarren arazoarekin amaitzeko egoeira onargarrietara hel daitezten.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan amiantoa desagerrarazte aldera garatu beharreko prozesuari buruzko plan zuzendari bat aurkez dezan, mozio hau onesten denetik urtebeteko epean. Planak, besteak beste, honako alderdi hauek jaso beharko ditu nahitaez:

1.- Nafarroako Administrazio Publikoan berriazko talde tekniko bat izendatzea, zeinean egonen baitira auziarekin zerikusia daukaten Nafarroako Gobernuko departamentuetako langile tekniko kualifikatuak; bereziki, Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren, Sustapenaren, Industriaren, E-

txebizitzaren eta Landa Garapenaren arloei lotutakoak. Orobat egonen dira toki administrazioen, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren eta egoki irizitako eragile ekonomiko eta sozialen ordezkariak. Talde horrek eginkizun izanen du plan honen betetzearen kontrola, jarraipena, bultzada eta zuzendaritza.

2.- Tokiak ikertzeko eta ikuskatzeko programa eta protokoloak, instalazio eta eraikuntza mota orotan –bai esparru publikoan, bai pribatuan– amiantorik ote dagoen detektatze aldera, eta seinalizazio-mapak prestatze aldera; hartara, kalkulatu da zenbateko giza baliabideak behar diren lan hori egiteko, langile horientzat beharrezkoa den prestakuntzarako eta lanbide-kreditaziorako, zenbateko bitartekoak diren nahikoak, zenbatekoak aurrekontuak eta zer denbora-epe diren beharrezkoak jarduketak aurrera eramateko.

3.- Jarduteko eta arrisku-ebaluazioa egiteko protokoloak, eta detektatutako amiantoa kentzean zein diren lehentasunak.

4.- Eremu publikoek eta pribatuek amiantoa behar bezala kentzera bideratu litzaketen giza baliabideek eta baliabide materialek eduki beharreko ezaugarrien azalpena, horiek bete beharreko baldintza eta ziurtagiri teknikoak eta profesionalak zehaztuta.

5.- Lanak esparru publikoan finantzatzeko programak, eta esparru pribatuetarako diru-laguntzen programak, urteko kostuen zenbatespen bat egin da, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horietarako partida berariazkoak paratu ahal izateko.

6.- Erretiratutako amiantoa behar bezala biltegiratu, tratatu eta “geldotzeko” hondakindegia Nafarroan eraikitzeari eta egokitzeari dagokionez zer beharizan dagoen ezartzea, proposamen zehatzak eta kostu ekonomikoen zenbatespena eginez.

7.- Herritarrentzako informazio, prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainak egitea amiantoaren arriskuei buruz, bai eta amiantoa espazio publiko nahiz pribatuetan detektatu eta horietatik desagerarazte aldera abian jarritako planei eta programei buruz ere, horien kostu ekonomikoaren zenbatespena eginda.

Hori guztia, Estatuan, Europan nahiz munduan eskumena daukaten botere publikoek eta erakundeek auzi honi buruz emandako jarraibide eta legedi oparoa aplikatuz egiten da, interes orokorra nahiz herritarren segurtasunerako eta osasunerako eskubidea aldeztuz. Eta noski, lanean osasuna babesteko eskubidea aldeztuz, zeina biziki garrantzitsua baita kasu honetan.

Iruñean, 2017ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalien babesari eta ongizateari buruzko egungo araudia berrikusi eta eguneratzeko prozesu bat abian jar dezan.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko irailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita animalien babesari eta ongizateari buruzko egungo araudia berrikusi eta eguneratzeko prozesu bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko irailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Herritarren kontzientzia eta jarduna, bai eta erakundeena ere, eboluzionatuz joan dira azken urteotan animalien babes eta ongizateari dagokienez. Lehen normaltzat eta onargarriztat jotzen ziren zenbait jardun, ohitura eta jarrera, denboraren poderioz, desegokitzat, okertzat eta desagertu beharrekotzat jotzen hasiak dira. Orobat aldatu da animaliekin oro har eta gugandik gertuago bizi diren espezieekin izan beharreko harremanari buruz pertsonen duten ikuskera orokorragoa.

Azken hamarkada hauetan areagotu diren kezka eta kontzientziazio horiek araudian ere islatu dira, gaia arautzen duten legeetatik hasi eta zenbait udaletan onetsitako ordenantzetaraino.

Gai hau –animalien babesa, alegia– Animalien babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legeak arautzen du Nafarroan. Xedapen orokorretan ez ezik (I. Titulua), legeak bere bost tituluetan

jorratzen dituen gaiak dira etxeko animaliei buruzkoa (II. Titulua), fauna aloktono edo ez autoktono-arena (III. Titulua), zentsua, ikuskaritza eta zaintza (IV. Titulua) eta arau-hausteak eta zehapenak (V. Titulua).

Hogeita hiru urte joan dira lege hori onetsi zenetik, eta denbora honetan zehar errealitateak, gertakariak eta egoera ezberdinek bilakabide bat egin dute, eta orobat herritarren eta erakundeen kontzientziazio-mailak eta ikuskerak.

Arau-korpusa bera, zeina 7/1994 Legeaz gain hainbat arlo arautzen dituzten beste lege eta foru dekretu batzuek ere osatzen baita, desorekatuta dago arlo horretan jorratu beharreko alderdiei dagokienez; esate baterako, basa faunari, etxeko animaliei edo laguntzako animaliei dagokienez. Azken alderdi hori da, beharbada, arau-garapenik txikiena izan duena.

Bestalde, argi geratu da, Nafarroako Parlamentuak 2016ko maiatzaren 25ean Basati Elkartearikin egindako lan-bilkuran ikusi ahal izan zenez, zuzendu beharreko egoera asko dagoela oraindik ere, eta indarrean dagoen lege-esparruak berak ez diela egokiro erantzuten 2017ko errealitateari eta beharriari; beraz, hori guztia berrikusi eta eguneratzea komeni da. Animalien Babesari buruzko Legea berrikusi eta eguneratu beharra dagoela halaber adierazi dute arlo horretan diharduten zenbait eragilek ere, zeinek arlo horretan bizi den egoeraren berri zehatza baitute.

Berrikuspen- eta eguneratze-lan hori guztia ikuskera ahalik eta zabalarekin egin beharra dago gainera, eta, hartara, eztabaidan inplikaturik dauden eragile guztien parte-hartzearekin, aholkularitzarekin eta lankidetzarekin. Hain zuzen, arlo horretan lan egiten duten gizarte eragile eta elkarteak, arestian aipatutakoak; horiez gain, jakina, erakundeak ere bai, hala toki entitateak nola Nafarroako Parlamentua eta Gobernua. Azken honen kasuan, ukitutako zuzendaritza nagusiak edo zerbitzuak inplikaturik; esate baterako, Ingurumena, Nekazaritza, Barnea, Toki Administrazioa eta abar.

Erabaki proposamena:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar dezan animalien

babesari eta ongizateari buruzko egungo araudia berrikusteko eta eguneratzeko prozesu bat, batez ere Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea aldatzeko xedez.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du araudi-aldaketarako prozesu hori lan-mahai bat sortuz abian jar dezan, zeinean parte hartuko baitute ukituta egon litezkeen departamentuek, Nafarroako Parlamentuak berak, toki entitateek eta animalien babesaren eta ongizatearen arloan lanean ari diren gizarte eragileek.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinarri-dokumentu bat presta

dezan, aipatutako lan-mahaiaren eginkizunaren abiapuntu gisa balioko duena eta Nafarroan nahiz beste esparru geografiko batzuetan indarrean dagoen araudia jasoko duena, bai eta lege berriak arautu beharreko esparrua zedarritzeko balizko aukerak eta gure erkidegoan dagoen egoeraren diagnosi eguneratua ere.

Iruñean, 2017ko irailaren 5ean

Foru parlamentariak: Unai Hualde Iglesias, Dabid Anaut Peña, Rubén Velasco Fraile eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan zigorren proportzionaltasunari dagokionez Oinarrizko Eskubideen Europako Gutuna betetzen dela bermatzeko.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko irailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izapidetu dadin Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko zuzemenak egin ditzan zigorren proportzionaltasunari dagokionez Oinarrizko Eskubideen Europako Gutuna betetzen dela bermatzeko. Mozioa 2017ko irailaren 8ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko irailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2017ko eztabaida dela-eta.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko irailaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, zeinetan eskatzen baita Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egitea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 201. artikuluan xedatuarekin bat etorritik Osoko Bilkurak eztabaida dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko irailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2017ko eztabaida dela-eta

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen 201. artikulua ezartzen duenez, legegintzartearen lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran, salbu eta Gobernuak lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten denean edo bilkuraldi horretan Nafarroan hauteskundeak egin behar direnean, Legebiltzarreko Osoko Bilkura berezia egiten da erkidegoaren egoerari buruzko politika orokorra eztabaidatzeko.

Artikulu horren lehen idatz-zatian adierazten denez, Nafarroako Gobernuak erkidegoko politika orokorrari eta egoerari buruzko komunikazio bat igortzen ahalko du Parlamentura, osoko bilkura horretan eztabaidatzeko.

Legegintzaldiaren bigarren urtea iraganik, eztabaida honek Parlamentuko taldeek Gobernuaren ekintza ebaluatu dezaten balioko du, eta baita garatzekoak diren lan- eta jarduketako ildo berri emateko ere.

Legegintzaldiaren erdia bete den honetan, eta urtetako krisi ekonomiko sakon baten ondotik, Nafarroak bere kontuak onbideratu ditu, erkidegorik kaudimendunena da, eta, EA Erekin batera kreditu-kalifikaziorik handiena lortzeaz gain, bilakaera ekonomiko positiboa izan du, adierazle ekonomiko nagusietan argi islatzen dena. Urteko bigarren hiruhilekoko barne-produktu gordinak erakusten du Nafarroako ekonomia %3,3 hazi dela, Estatuak baino bi hamarren gehiago.

Nafarroako hazkunde ekonomikoa ederki gaintzen ari da aurreikuspenak; beraz, gerta liteke hirugarren hiruhilekokoan zehar nabaritzen hasita oraingo urterako aurreikusita zegoen hazkunde-moderazioa. Dena den, etorkizunean etorriko den mailaz mailako dezelerazio labur hori gorabehera, espero izatekoa da Nafarroako hazkundera %3tik gorakoa izatea 2017a bukatzean.

Barne-produktu gordinaren bilakaera onak berretsi egiten du gainerako adierazle koiunturalak urte hasieratik erakuste ari direna. Enpleguaren arloan, Nafarroa da langabezia tasarik txikiena duen erkidegoa (%10,55). Enplegu zerbitzu publikoen bulegoetan abuztuan, guztira, 35.951 langabe erregistratu ziren, eta horrek esan nahi du langabeziak %7,58 egin duela beheiti azken hamabi hilabeteotan. Zifren joera ona den arren, oraindik ere enplegua dugu Gobernuaren lehentasun funtsezkoenetako bat, oraindik ere asko baitago egiteko. Nafarroan izaten ari den hazkunde ekonomikoak kalitatezko enpleguari eragin behar dio. Horregatik, Nafarroako Gobernuak lanean segituko du langabeziaren zifrak murrizteko, baina orobat bultzatuko du kalitate handiagoko lanpostuen sorrera, lan prekarietatearen arazoari heltzeko hala.

Ekonomiaren sasoi ona eta enpleguaren bilakaera garbi islatu dira diru-bilketan ere. 2017ko lehen seihilekokoan, tributu-bilketa likidoak %9 egin du goiti, iazko epealdi berean bildutakoarekin alderatuz gero. Igoera hori zerga erreforma progresibo eta arduratsu baten emaitza ere bada,

departamentu guztien gehieneko gastua goratzeko aukera eman duena, behar ziren epean eta moduan onetsitako aurrekontuak baliatuz, 2016an defizitaren, zorraren eta gastu arauaren helburuak bete dituztenak. Aurrekontu horiek, bestalde, bidea eman dute aurreko urteetako zama handiei ere aurre egiteko, kontuak desorekatu gabe, eta, era berean, azken hamarkadako sozialenak ere izan dira.

Ildo berean, Nafarroako Gobernuak Foru Parlamentuari onesteko proposatuko dizkion 2018ko Aurrekontu Orokorrek gizarte kohesioan aurrera egiten segitu nahi dute, Osasuna, Hezkuntza eta Mendekotasuna ardatz nagusitzat hartuz eta I+G+Bren alde eginez, hori baita garapen ekonomikoaren ardatza, baita lurralde-egituraketaren alde ere.

Horrela, segida emanen zaie murrizketa handiak egin aurreko egoerara itzultzeko eta zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko balio izan duten politikei. Halaxe lortu da, esate baterako, mendeko pertsonen %32 baino gehiago artatzea, 22.000 nafarrek %8ra bitarteko igoerekin osatzea beren pentsioak, itxaron zerrenda laburtzea bai lehen kontsultan bai ebakuntza kirurgikoetan, ospitaleetako sukaldeak lehengoratzeta edo pobrezia eragozteko laguntzak bikoiztea.

Bizi kalitate hobea duen gizartea eraikitzea, oparoagoa, iraunkortasun handiagokoa eta sozialki kohesionatuagoa, horra Nafarroako Gobernuaren helburu garbia. Bide horrixekin diogu, eta bide horretatik egiten dugu aitzina. Egin behar du aitzina inor atzean utzi gabe aurrera doan nafar gizarteak. Eta asmo handi hori gogoan, Nafarroako Gobernuak Espezializazio Adimentsuaren Estrategian ari da lanean, 2030erako nahi dugun Nafarroa diseinatu baitugu bertako 24 erronken, plan estrategikoen eta klusterren politikaren bidez.

Era berean, Nafarroako Gobernuak etorkizuneko garapenerako egitura oinarrikoak osatzeko

erronkari egin behar dio aurre, oraingoan mantentze-lan egokiei ekiten dien bitartean. Nafarroako Ubideari dagokionez, Gobernuak geldirik zegoen proiektua birdefinitu du, eta zentzuzko ikuspegia txertatu dio, kalitate oneko eta prezio oneko ura bermatzen duena eta Nafarroako Erriberako oraingo eta etorkizuneko premia guztiak asebetetzeko asmoa duena. Trenbidearen arloan, berriz, Nafarroako Gobernuak interes orokorrari eta gizartearen egiazko beharizanean erantzunen dieten azpiegituren alde egiten du, Europarekin bat egiteko balioko digutenak trenbide zabalera europarrarekin, bidaiariendako eta salgaietarako baliagarriak, arriskurik gabeko finantzaketa formula bat aurreikusiko dutenak eta baztertu egiten dituztenak abiadura handiko trenetarako Estatuan nagusitu diren proiektu faraonikoak.

Erronka horiei guztiei aurre egiten diegu uste osoa dugularik ahalik eta akordio eta adostasun handiena lortuko dugula, batez ere gure autogobernuaren defentsari dagokionez. Ildo horretan, laster dira amaitzekoak Hitzarmen Ekonomikoak modu bidezko batean eguneratzeko Estatuarekin esku artean ditugun negoziazioak.

Horietan eta bestelako auzi batzuetan ardaztuko da eztabaida, eta espero dut lasaia eta eraikitzailea izan dadila. Nafarroako Gobernuak aldarte irekiz joanen da, eta Parlamentuko indar politiko guztien ekarpenak hartzeko gogoz, uste sendoa baitugu adostasuna eta akordioa gailenduko direla Nafarroako ongizatea eta aurrerabidea hobetzeko mesedegarriak diren ekimen guztietan.

Horrenbestez, jakinarazten dizut Nafarroako Gobernuak erabakia hartu duela Nafarroako Parlamentuan Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidari bide emateko.

Iruñean, 2017ko irailaren 6an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: Uxue Barkos Berruezo

